




KRIKA

Klasiko baten itzulera

Irati Majuelo

Mo etxera itzuli da. 1991n argia ikusi zuen behi euskalduna Pamiela argitaletxera bueltatu da, bere sorlekura, bizialdiko memoriak eleberri grafiko bihurtuta. Pello Varela gidoigilearen eta Juan Suarez marrazkilariren elkarlanak azalberritu du oraingo honetan Bernardo Atxagaren eleberri ezaguna. Izan ere, azken hogeita hamahiru urteetan, asko dira jatorrizko lanak izan dituen berrargitalpen, adaptazio eta itzulpenak.

Varela eta Suarezen berri-rakurketa honek Atxagaren istorioaren muinari eusten dio: Mo behiaren jaiotzatik hasi eta, etxetik kanpo zenbait urte egin ostean, atzera Balantzategira joaten den arteko oroitzapenak azaltzen ditu, tartean direlarik Espainiako Gerla Zibilaren ondorena, makien mugimen-



'MO. BEHI EUSKALDUN BATEN MEMORIAK'

Egileak: Juan Suarez eta Pello Varela.

Argitaletxea: Pamiela.

duak eta Zuberoako komentu batean egindako egonaldia. Muinean, inimizazio baten narrazioa da, erakusten baitu Mo txekorraren hasierako xalotasuna nola bilakatzen den bizi-eskarmentu, baita gaztetasunak berekin dakarren jakin-mina asetzeko eta eremu ezezagunak esploratzeko beharra ere.

Ikasbidea gertakari latzeta-tik datorkio Mori, baina baita laguntasunaren eskutik ere, Soeur Paulinek eta La Vachek erakusten dioten gisan. Xenda zuzena jarraitu nahi ez dutenen artean elkar babesteko beharra ageriko egiten da haien bidez, trama nagusiari trabeska sortzen zaizkion azpi-istorioetan. Horren harria, esan liteke jatorrizko eleberri jadanik garrantzia bazuten ere, formatu berriak nabarmendu egiten dituela Mo-ren keinu gizatiarrak: hala nola etxekoekin duen komunikazio hurbila, barne ahots setatsua, beste behiengandik bereizten duten beldur eta grinak.

Hiru atal nagusitan bana daiteke eleberri grafiko: sarrera-korapilota-amaiera. Eskema klasikoari jarraitzen dio, beraz, nahiz eta analepsiak eta denbora jauziak tartekatzen diren behiaren oroitzapenak eta amesgaiztoak azaltzeko.

Hala, komikiak berezko dituen baliabide espresibo eta plastikoaren bidez errazten da denbora-lerroaren etenaldiak jarraitzea, eta aldi berean, irakurleari eskatzen zaio istorioa bere irudimenaz eta erreferentziez osatzea.

Hala ere, komikiaren bereizgarri nagusia kolorea da. Suarezek kolore bizi eta distiratsuak baliatu ditu istorioari dinamismoa emateko. Errealitatearen irudikapen zuhurretik aldentuta, larre arrosak, behi urdinak zein zeru moreak aurkituko ditu irakurleak, aldiro tonuz aldatzen diren paisaiak eta egunaren eta gauaren arteko talka gogorak, ilustratzaileak azaldu gisa, emozioen eta adierazkortasunaren mesedera erabili baititu koloreak.

Mori esker, honenbestez, gazte literaturaren klasiko bat itzuli da, guztiontzako literatura dela gogorarazte-
ra. ●

xurlatuz hitz egiten dela. Zer-nolako eragina ote du xuxurlatzen den hizkuntza batean idazteak?

Liburutegiak, unibertsitateak, museoak eta arteguneak suntsitutuz, palestinarren kultur transmisioa ere eteten ari dira. Genozidio oro da kulturala. Apirilean, Gazan, Shababeek arte garaikidearen gunea txikitu zuen Israelgo armadak; erasoan 20.000 artelan galdu ziren.

Shibli elkarlanean aritu ohi da artegunearekin, eta Artiumen bertan haren galera deskribatu zuen. Agerikoa zen egungo egoeraz hitz egitea latza egiten ari zitzaiola Shibli; hala ere, Euskal Herriko arte garaikideari eskainitako museoan zehazki azaldu zuen Gazako beste museo garaikide bati gertatutakoa. Haren hitzek oihartzun berezia zuten museoren testuinguruan. Shabilren kontakizunaren arabera, hondamendiaren ondoren, kazetariak museoaren buruari galdetu ziotenean ataka gaizto horretan beharrezko zer ote zuen, bi gauza besterik ez zituela behar erantzun zuen museoko arduradunak: maitasuna eta esperantza. ●

KRIKA

Dramarik gabe

Imanol Mercero

Elkarren Xaguxar bildumak aurrera egiten du eta dagoeneko 251 titulu eskaini dizkigu euskal irakurleoi. Bilduma eklektikoa da, beldurra bezala, misterioa, barrea edota eleberri soziala eskaintzen diguna, azken hau den bezala.

Narrazio luzetxoa da —nobela izateko laburregi bere 60 orrialde eskasetan—, protagonistaren bizitzaren pasarte bat kontatzen duena, pasarte tragikoa, aitona Floren hiltzen denekoa.

Pertsonaia oso gutxiarekin eraikia dago, Danel protagonistaren gertuenekoak aipatzen dira, bereziki ama eta Txuri txakurtxoa, funtsean Danelek aitona Floreni egiten dion kronika delako. Lehen lerrotik azkeneraino ari zaio Danel aitonari hizketan, uanean unekoa kontatzen dio, zertan ari den, zer pentsatzen duen...



'AITONA FLOREN'

Idazlea: Carmele Mitxelena.

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena.

Argitaletxea: Elkar.

Maiz aitonari zuzenean oharrak eginez txakurtxoaz, bizilagun Samiraren etxeko usainaz... Xalo, dramarik gabe.

Eta kronika herabe hau irakurtzen ari garela Danelek bere aitonaaren heriotza nola bizi duen kontatzen zaigu, orainaldian, filtrorik gabe.

Testua ausarta da, idazketa oso zuzenekoa, deskriptiboa, ilustrazioak diren bezainbat, fokua nabarmendu nahi izan diren egoeretan jartzen duena, irakurleak uñaren erretratatu izan dezan. ●

KRIKA

Amets bidean

Imanol Mercero

Baikor eta jostalari aurkezten zaizkigun proposamenak udarako preskura literario atsegin bihurtzen dira, *Luka eta Utx* bilduma kasurako.

Kontakizunaren protagonista nagusia Luka da, bere desioak zerrenda batean idatziz gozatzen duen mutikoa. Haren gurasoak ia ez dira agertzen. Izan ere, Luka aitona-amonon etxera eramaten baitute oporrrak direnean, kostaldeko etxe xarmant hartara. Utx zakurra zain dauka bertan, tandem banaezina osatzeko prest. Igarriko diozue: hondartza giroan, oporretan, txakurtxo zuri-gorri baten konpainian... Ez, istorio hauetan ez dago perfekzioa urratuko duen gabeziarik. Ezta irudigintzan ere, ilustrazioak formaz, osaez eta kolorez akasgabeak direlako.

Badakit orain *baina* parrastada bat bota beharko



'BIZITZA EDERRA DA'

Idazlea: Aurelie Valognes.

Ilustratzailea: François Ravard.

Itzultzailea: Imanol Salegi.

Argitaletxea: Ibaizabal.

nukeela, baina iruditzen zait bilduma hau ametsen eta desioen munduko narratiba dela, idealizazio beharrezko horien erakusgarri. Izan ere, gogoan izan behar dugu arketipoen munduan irudiak sentipenen ordezkari baino ez direla, kontraesankorrak eta ahulak direla ahaztu egin behar dugula, hau ez baita kontakizun errealista bat, baizik eta edonon ere bizi daitekeen amets polit bat. ●